

Katalanak dira Hernanira gehiena datozen turistak

■ Ostalaritza sektorean, Hernanin Txintxua hotela, Zinko Enea pentsioa eta Belazarte, Pagoaga eta Sansonategi nekazal etxeak daude (Pardiola nekazal etxea, laister zabaltzekoa da) ■ Abuztuan plaza guztiak bete egiten dira.



Belazarte nekazal etxea eurpean. Eguraldia lagun ez bada ere, ostatu plazak aurten ere beteko dira.

UDARAN hernaniar asko da deskantsu bila herritik joaten dena, baina kontrako bidea egiten dutenak ere asko dira. Leku askotako bisitariak datoz Hernaniko hotel, pentsio eta nekazal turismoetara.

AUKERA ZABALA

Orain urte batzuk aukera gutxi zegoen Hernanin ostalaritza sektorean. Baina, azken urteetan aukera hau asko hobetu da. Esaterako, iaz *Zinko Enea* pentsioa eta *Txintxua* hotela zabaldu ziren. Nekazal etxeak ere ez dira aspaldi zabalduak. Une honetan badira lau, *Belazarte*, *Pagoaga*, *Sansonategi* eta baimenak lortu orduko

uztaila amaiera aldera zabalduko den *Pardiola*.

UDARA MUGITUA

Kronikak sektorera jo du, Hernaniko turismoa aztertzeke. Guztiek eman dute antzeko erantzuna: udara partean dena beteta egoten da. Uztailean mugimendua nabaritzen hasten da eta abuztua izaten da indartsuena. Beste urte bolada batzuetan ere izaten omen dute mugimendu dexente. Sagardotegi garaian, asteburuero jende asko etortzen omen da gaua pasatzera.

KATALANAK

Guztiek oso argi daukate zein

diren bezerorik onenak, katalanak. Datozen erdiak baino gehiago kalaluniatik omen datoz. Italiarrak, alemaniarak, belgiarrak, ingelesak eta abar. iristen dira. Eta beste kontinenteetatik ere bai; Australiatik, esaterako.

Ahoz ahoko informazioak funtzionatzen duela diote ostatu jabeek. Askotan, aurretik izandakoak datoz berriz; edo bestela, aurretik izandakoak gomendatuta datoz turista gehienak. Gutxi bada ere, izaten omen da tarteka, zalantzaren batekin etortzen denik ere. Iritsi orduko lasai egongo diren edo zerbait gertatuko den galdetzen duena.

HERNANIKO OSTATU ESKEINTZA

Hotela
Txintxua Hotela
Zikuñaga 72 - Tel: 943 33 36 80
20 gela (2 gela talde haundientzat)
Arduraduna: Juan Karlos Gofiri
Pentsioa
Zinko Enea pentsioa
Nagusia 57 - 1goa - Tel: 670 39 08 97
8 gela (15 ohe)
Arduraduna: M. Jose Garmendia
Nekazal Etxeak
Sansonategi
Martindegi auzoa - Tel: 943 33 04 29
5 gela (10 plaza)
Arduraduna: Milagros Zabalegi
Belazarte
Pagoaga bailara 10 - Tel: 943 33 15 69
5 gela (10 plaza)
Arduraduna: Javier Lopez
Pagoaga
Pagoaga bailara 1 - Tel: 943 33 20 73
3 gela (2 taldeak sartzeko modukoak)
Arduraduna: Juana Mari Aruti
Pardiola
Osiñaga bailara 29 - Tel: 943 33 36 79
9 gela (18 plaza)
Arduraduna: Iñaki Valle

TXILLIDA LEKU

Hernanin ostatu egiten duen turista, normalean ez omen dator Hernanik erakarritara, baizik eta ingurua ezagutzera. Batipat Donostiak duen gantxoagatik. Hala ere aurten asko nabaritu omen da Hernanin *Txillida Leku* zabaltzea.

Euskal Herriko beste hiriburuen eragina ere nabaritzen omen da, nahiz apartxeago gelditu. Iruñara San Fermintara datorren jendea, Bilbora Guggenheimera eta abar.

Denek esan digutenez aurten iaz baino mugimendu gutxiago dabil; baina, hala ere, plaza gehienak beteko omen dira aurten ere. □

Osiñagako auzo elkarteak bilera du gaur

Osiñagako auzo elkarteak baditu zenbait gauza hitz egiteko eta bilera egingo du gaur eguerdiko 12:00etan. Gaurko puntuak, besteak beste, iraileko eskurtzioaren kontua eta bideena izango dira.

IGERIKETA

Gipuzkoako Txapelketako azken probak

Gipuzkoako Igeriketa txapelketa gaur bukatuko da. Probak Ordizian ari dira jokatzeko eta Hernaniko 10 igerilari dabilta konpetizioan, atzo eta gaur.

Apaolaza-Avila Sendiaren Eskertza

Hitz xume hauen bitartez, Josebaren heriotza gogorren aurrean, jende guztiak erakutsi duen jarrera sentituta eskertu nahi genuke bihotz-bihotzez. Joseba, izugarri harro sentitzen zen hernaniar izateaz, harro egiten zuen lan herriarengatik eta nonahi dagoela ere, ziur gaude oso harro egongo dela herriak izan duen jarrera eta guran erakutsi duen berotasunagatik.

Zinez eskertu nahi ditugu agerturiko doluminak, jasotako animoak eta urrunean gerturatu ezinik ikusi ditugun malko eutsiezinak. Mila esker udaletxe eta herritarrei, eginiko omenaldiengatik.

Ez berak eta ez guk, ez dugu ahaztuko momentu gogor hauetan jaso dugun goxotasuna eta babesia.

Bihotz-bihotzez, mila esker.

Joseba Apaolazaren familia

DORRONSORO

OKINDEGIA

Bertan egindako kalitatezko ogia

J.DORRONSORO OKINDEGIA, S.L.
Lizeaga, 7 ☎ 943 33 36 18
20120 HERNANI

MARI FERRER

ARRANDEGIA

Nagusia 36 Orkologaga 17
943 55 04 89 943 55 27 41
HERNANI

SANTA BARBARA
PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoak aldatzen ditugu

Peugeot 406	TD	1.900.000 pzta
Peugeot 405 GRI	1.9 Aire egokitua	570.000 pzta
Peugeot 206	Diesela	berria
Renault Clio - 5p.	Diesela	775.000 pzta
Citroen AX- 5 ate	Diesela	475.000 pzta
Ford Escort - 5 ate	16 balbula - gorria	550.000 pzta
Renault Express	Diesela	650.000 pzta
Renault Express	Diesela	450.000 pzta
Suzuki "Todo terreno"	1.2	290.000 pzta

eta beste hainbat, 100.000 eta 200.000 pta artean...

Karmengo jaia bihar 'Andrekalean'

■ *Kaxko Elkarteak* antolatu du hirugarren urtez jarraian ■ Martin Idarreta izendatuko dute kaleko alkate eta berak izango du aginte 'makila'.



Malluzko Andrekaleko jaietan aginte makila jasotzen.

OSPATU gabe urte asko egon ondoren, duela 3 urte berreskuratu zuen Kaxko Elkarteak *Andrekaleko* jaia. Elkarteak udaleko artxiboetatik jaso duen dokumentazioan 1953ko jai egitaraua da zaharrena. Azkeneko agertzen den egitaraua berriz, 1966koa. Orain urtero antolatzen da.

KALEKO ALKATEA

Urtero, Karmen jaietan Andrekaleko pertsona bat kaleko alkate izendatzen du Kaxko Elkarteak, eta aginte makila ematen diote. Aurtengoan Martin Idarretak jasoko du Andrekaleko jaia antolatzen egin izan duen lanagatik. Ekitaldia eguerdiko 12:00etan da, Martinen balkoian bertan, Kardaberaz 20an.

GOIZETIK FESTA

Hasiera ofiziala 12:00etan izango bada ere, lehenagotik izango dira ekintzak. Goizeko 09:00etan Karmengo Amabirjinaren ohorezko meza izango da, parrokan. 09:30etan Diana, kalean barrena. Denak ondo esnatu ondoren, haur joko-

ak izango dira plazan. Udalekuetako ume guztiak izango dute non gozatua. Haur jokuei errematea emateko *gatzeluak* egongo dira plazan. Trikitilariak ere ibiliko dira kalean gora eta behera.

Orain dela gutxi arte, Andrelakeko etxeek izena zuten eta aurten izen horiek bildu nahi dituzte edadetuenen laguntzaz

KARTA JOKOAK

Arratsaldeko 18:00etan, mahaiak kalera atera eta han ari-tuko dira kartetan: musean, tutean eta eskoban. *Andrekale* izenari eutsiz, karta jokoan ateratzeko bikoteek mixtoak edo emakumezkoak behar dute. Ohitura zaharrek horrela agintzen omen dute kale honetan. Garai batean gizonezkoak Kale Nagusian ibiltzen

omen ziren, eta andreak Kardaberaz kalean geratzen omen ziren kartetan jokatzen.

Arratsaldeko 18:00etan, umeentzat txokolatea Plaza Berrian. Eta 20:00etan Sardina jana. Kartetako sariak orduan banatuko dira. Festa alaitzen trikitixa izango da gaueko 22:00ak arte.

ETXEETAKO IZENAK ETA EZIZENAK BILDU

Jaietako programan agertzen ez bada ere, *Andrekalean* ideia berri bat badute aurten. Itxura denez, ez hain aspaldi arte, Kardaberaz kaleko etxeek zenbakiak ez ezik izenak ere bazituzten. Eta batzuk izena eta ezizena, biak. Aurten izen horiek bildu nahi dituzte, gero agian berriz etxeetan jartzeko. Horretarako astelehenean Gudarien plazan mahai bat jarriko dute eta kaleko edadetueni hara joatea eskatzen die garai bateko izenen berri ematera.

KALEA ITXITA

Jaia dela eta, Kardaberaz kalea egun osoan itxita egongo da kotxeentzat. □

■ ATENTATUA LEITZAN

EA, EAJ, PSE eta EB alderdiek konzentrazioa deitu dute biharko

Jose Jabier Mujika Astibia, Leitzako kontzejalaren "hilketa salatzeko", Hernaniko EA, EAJ, PSE eta EB alderdiek konzentrazioa deitu dute bihar astelehenarako. Prentsa oharrak dioenez, konzentrazioa Atsegindegan izango da arratsaldeko 20:00etan.

116 Tiratzaile Hernani T.O.K.E Sari Nagusian

■ Legazpin jokatu da, Txirta elkarteak antolatuta



Tiratzaileak Legazpiko tiralekuan.

JOAN den igandean jokatu zen Legazpiko Katagorri Elkartearen kanpan, Txirtak antolatutako Lehenengo Hernani T.O.K.E Plater Tiraketa Saria. Tirada hau, probintzi mailakoa zen eta bertan 116 tiratzaileek hartu zuten parte. Antolatzaileek prentsa ohar batean adierazi dutenez, Plater Tiraketa lehiaketa batean aspaldian izan den parte-hartzerik altuenetakoa da. Txirta Elkarteak eskerrak

eman nahi dizkio Katagorri Elkarteari, lokala eta kanpa uzteagatik.

TIRO PITXOIA

Iosu Azpeitiak irabazi zuen, San Joan egunean Jauregin jokatu zen *Colombaie* erako usakume tiraketa. Lehiaketa hau aprobetxatu zuen Txirta Elkarteak Luis Mari Zeraini, oroigarri bat emateko, iazko Gipuzkoako Kopako Txapel-dun izateagatik. □



Luis Mari Zerain oroigarria jasotzen.

■ PELOTA

Unai Alvarez eta Mikel Ruiz de Galarreta gaur, 'Hernaniko Lauterdiko Txapelketan'

■ Arratsaldeko 19:00etan jokatuko dute, Tilosetan ■ Finala uztailaren 28an da.

HERNANIKO Pelota Elkarteak herriko *Lauterdiko txapelketa* antolatu du. Txapelketa mailakatu egin dute eta kadeteek dagoeneko jokatu dituzte beren partidua. Orain jubenilak sartu dira eta gaur Unai Alvarezk eta Mikel

Ruiz de Galarretak neurtuko dituzte elkarren abilitadeak. Hori Final laurdenetako fasea da. Final aurrean Jon Zabala eta Mendizabal sartuko dira.

Partidu guztiak Tilosetako frontoian jokatuko dira. Eta finala, uztailaren 28an. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750
▶ Jokalari anonimok 943 331103

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 55 17 93
▶ Gaez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 55 17 93

HEMEN

Ibilgailuak engrasatu eta esku garbitzen ditugu.

Florida 56 - ☎ 943 551005 - HERNANI (LIDL eta DIA supermerkatuetatik 100 metrora)



MAVIA APAINDEGIA

Zure estetika-zentroa Hernanin

- ⇒ DEPILAZIOA: - Hotza - Beroa
- ⇒ DEPILAZIO ELEKTRIKOA
- ⇒ MANIKURA
- ⇒ AURPEGIKO TRATAMENDUAK
- ⇒ SOLARIUMA (Eskaintza berezia: 10 + 2)
- ⇒ GORPUTZ TRATAMENDUAK: Presoterapia

ZURE ESANERA GAUZKAZU EGUN OSOAN!! ANIMA ZAITEZ ETA BISITA GAITZAZU!!

Kardaberaz 60 - Tel: 943 55 27 49 - 20120 HERNANI